



# DIDAM

BAYONNE

BAIONA HIRIAK AURKEZTEN DU

| ERAKUSKETA

## TRANSIT LA SOURCE GAROUSTE ITURRIA

**2023KO EKAINAREN 2TIK 18RA**

**Du 2 au 18 juin 2023**

Denei irekia / Astearretetik igandera, 13:00etatik 18:30etara irekia

Entrée libre du mardi au dimanche de 13h à 18h30

Bayonne\*

BAIONA-PAYS BASQUE

Plurielle et si singulière

**“Transit” Baionara itzultzen da udaberri honetan.**

Arte bisualen elkarte eta tokiko artistekin elkarlanean garatua, egoitza artistiko hau eta bere eskola bitartekaritza La Source Garrouste-Iturria elkarteak darama aurten Aurélien Delwood eta Laurent Terras Didam era gomitatuz. Hezkuntzari dagokionez, Hezkuntza Nazionaleko zerbitzuek laguntzen dute eta aurten Baionako ezker eta eskun ertzetako bi ikastetxeri proposatua zaie: Maurice Ohana eta Jules-Ferry eskolei.

Ikasleei jakinminaren eta sormenaren garatzeko artisten arteko topaketa piztuz, Transit operazioak proposatzen du sorkuntza artistikoaren sustengatzea, Didam-ean egonaldi bat proposatuz eta gazteen arteko bitartekaritza bultzatzea, kolektiboki egina den obra baten diseinu eta lantze ezberdinak aurkituz.

Didam-eko programazioko une garrantzitsu bat, itzultze erakusketa batekin bukatuko dena.

Bestalde, erakusketa honek agerian utziko du La Source Garrouste-Iturria elkartearen lana, duela bost urtetik Euskal Herria bazterkeriaren aurka eta guztietan borrokatzera zuzendutako sorkuntza-ekintzak proposatzen dituen gazte eta publiko urrituekin konprometitutako elkarte. Ekain hastapenean, eragile horien lana, transmititzeko eta partekatzeko zaletasunak bultzaturik, baina baita ere, azken urteotan elkartearen tailerretan loratu diren ehunka haurren sorkuntzak ezagutzeko aukera izanen dugu!

Jean-René Etchegaray

Baionako Auzapeza - Euskal hirigune Elkargoko Lehendakaria



**LA SOURCE GAROUSTE-ITURRIA** 2017an sortu zuen lagun talde beterano batek, boluntario gisa engaiatuak: "Artea nortasuna eraikitzeke funtsezko eragile bat da" sinetsirik. Nahiz eta leku baten bila ibili, haren funtzionamendu nomada Euskal Herri osoan hedatzen da. La Source Garrouste-Iturria gizarte zentroekin bai eta eskatzen diguten Medikuzko Gizarte zentroekin elkarlanean ari da.

Gure tailerren helburua haurren eta nerabeen eguneroko galderen edo beharren inguruan lan egitea da, praktika artistikoaren bidez: gauzak adierazteko modu desberdinak aurkitzea, esparrutik ateratzea, galderei irtenbide sortzaileak aurkitzeko. Hainbat artista eta praktika artistiko eskaintzen ditugu eta proiektua elkarrekin eraikitzen dugu. Praktika artistikoko tailer horiek binomio batek gidatzen ditu. Binomio hori artista profesionalak eta animatzaile soziokulturalak edo hezitzaile espezializatuak osatzen dute. Era guztietako tailer artistikoak, arte plastikoak, arte biziak, antzerkia, idazketa, musika eta abar proposatzen ditugu. Tailerren formatuak beharren arabera egoki daitezke. Tailer baten iraupen normala astebete edo 15 egunekoa da. Halaber, 3 hilabeteko egoitza artistiko bat proposatzen da, astean egun bateko tailerrarekin + aste oso bat. Tailer bakoitzaren bukaeran, formatua edozein izanik ere, bernizatze bat antolatzen da. Bernizaketa une garrantzitsua da haurren eta nerabeen talentua aitortzeko, haien lanak balioetsiz, haien hurbilekoen, gomitatuen, zentroetako arduradunen eta hiriko arduradunen aitzinean.

Hemen aurkezten dugun atzera begirako irudiak tailerrean haurrengan ikusten dugun bizitasun sortzailea islatzen du. Euskarri ezberdinetan eta gai anitzetan, emaitza beti irudimenez, kolorez eta formez beteta dago. Haien lanei esker, haurren poza sentitzen dugu. Guretzat, La Source Garrouste-Iturriako taldearentzat, benetako plazerra da atzera begirako erakusketa honi esker, 3 eta 18 urte arteko haur hauek 6 urte hauetan tailerretan egindako lana zuekin partekatzea. Tailer hauetako irudi biziak diren filmak ikusiz, urte luze hauetan bizi ditugun eta lekuko izan garen algaren eta pozen partekatzeko aukera ukanen duzue, eta luzarorako oraindik!







© Delwood

## AURÉLIEN DESBOIS DELWOOD-EN BIOGRAFIA

Baionan 1983an sortu Artista Margolaria

Frantziako eta Espaniako harresietan pintatzaile gida hasi zen, oihalera pasatu aurretik. Arte irisgarri, partekatu eta komunikatiboa aldarrikatzen du guztientzat. 2007an erakutsi zuen lehen aldiz. Ekologia eta ingurumen arazoetan oso murgildua, kezka horiek adin guzietako haurrei helarazten dizkie tailerren bidez. Bere bizitza lur eremu ezberdinetan egiten duen sorkuntza plastikoaren, mendi ibilaldiaren eta surfaren artean osatua da.

## LAURENT TERRAS-EN BIOGRAFIA

Nimes-en 1970an sortutako artista

Laurent Terras Marseillako Friche Belle de Mai-ko bizilaguna zen. Kontsumo-gizartea, teknologia, geopolitika ditu gai nagusiak. Bere lanean, funtsean, instalazio teknikak, argazkia eta marrazkia erabiltzen ditu. Paris hiriko Traversées, ARC eta Musée d'Art Moderne erakusketan parte hartzeko aukera izan du. Haren lana CNAPren bilduma publikoetan eta Limoges-eko Arte Garaikideko Eskualde Fondoan ere aurkitzen da. Laurent, Angelun bizi eta lan egiten duen pertsona bat da.



© Laurent Terras



© La Source Garouste-Iturria

## LA SOURCE GAROUSTE ELKARTEA

Duela 32 urte Elisabeth eta Gérard Garoustek Normandian sortu zuten elkarte hau kasik kasualitatez sortu zen, hezitzaile baten, margolari baten eta geltoki desinfektatu batean prekaritatean bizi zen familia baten arteko topaketa baten ostean. Nola lagundu jakin gabe, Gérard Garouste artistak egiten zekien gauza bakarra proposatu zien hezitzaileari eta familiari: marraztu eta pintatu. Hortik dator uste sendo bat: "arteak ez da luxua, beharra baizik", elkartearen oinarri sortzailea.

Horrela onginahizko transmisioa, aurkikuntzaren bidez esnatzea, artearen bidez bere burua baieztatzea eta irudimena dira La Source-ren sortze-balioak. La Source-ren izpiritua ageri da batez ere, sorkuntzaren funtsezko eginkizuna nortasunaren eraketan, arteak gizabanakoaren balorizazioan laguntzen duelako ideia darama txikitatik hezkuntzarekin, bazterketa ororen aurka.

La Source tailerra batean, haur bakoitzak zerbait lortzen du norberarentzat eta taldearentzat.

Hasieratik, Elkartea estrukturatu eta antolatu da. Etengabe hazi eta dibertsifikatu da, eta 31 urtetan, Frantziako hainbat eskualdetan 10 Source-eko sare bat sortu du, horien artean La Source Garrouste-Iturria.

La Source Garrouste Kultura eta Hezkuntza Nazionaleko ministroekin hitzartua da.

La Source Garouste-Iturria taldea : Louis d'Antin, Olivier de Beauchamp, Patrice Bemachon, Pierre Capperon, Hervé Soriano | Lehendakaria : Tina Irisarri Bemachon : [tina.bemachon@free.fr](mailto:tina.bemachon@free.fr) - 06 81 06 47 29 | Koordinatzailea : Clémence Sarran-de Védrières : [coord.lasourceiturri@gmail.com](mailto:coord.lasourceiturri@gmail.com) - 06 63 85 31 68 - [www.lasourceiturria.com](http://www.lasourceiturria.com)  
Segi gaitzazue   



**DIDAM** BAYONNE

6 QUAI DE LESSEPS - BAYONNE  
LESSEPS KAIA, 6 - BAIONA

BAIONA HIRIKO ARTE GARAIKIDEN GUNEA

XEHETASUNAK | BAIONAKO KULTURA ETA ONDAREAREN ZUZENDARITZA | 05 59 46 63 43 |  
RENSEIGNEMENTS | DIRECTION DE LA CULTURE ET DU PATRIMOINE DE LA VILLE DE BAYONNE |



Bayonne  
BAYONNE-PAYS BASQUE  
Plurielle et singulière